

Nola sartu entzute-ariketak ahozko adierazpenaren lanketan

Dick Edelstein

Komeni da entzute-ariketak ahozko adierazpenaren lanketaren barnean sartzea, ikasle batzuek beste batzuk hizketan ari diren bitartean entzungo dutela ziurtatzeko. Horrela, lortu nahi den komunikazio-ariketa ez bait da ikasleak irakaslearentzat egiten duen antzerki huts bilakatuko. Ataza hauek ulermena lantzeko iturri egokia dira, bereziki baliagarriak ulermena lantzeko materialak gutxi edo erdipurdikoak direnean.

Bilbon 1991n egindako TESOL Spain¹ kongresuko tailer batean du oinarri artikulua honek: «Students listening to students: using listening tasks in oral fluency activities» (Ikasleak ikaskideei entzuten: entzute-ariketen erabilera ahozko jardotasunaren lanketan). Parte hartu zuten irakasleek ondoren azalduko diren lanak egin zituzten, aurrez azalpen eta analisi handitan aritu gabe, egiteak berak zuritzen bait du argi aski horien balioa. Artikulu honetan, ordea, demostrazio praktiko batean behar diren baino azalpen zabalagoak emango ditut.

Zergatia Hauexek dira entzute-ariketak ahozko adierazpenaren lanketan sartzeko arrazoiak:

- Ikasleek probetxu handia atera diezaiokete ikasgelan beren ikaskideei entzuteari. Baina hiltuna beraiei zuzentzen ez zaienean, askotan arreta galdu eta ez dute entzuten.
- Entzute-ariketek ikasleei beren ikaskideei hauek taldean ahozko adierazpena lantzen ari direnean entzuten egoteko motibazioa ematen diete.
- Era honetako ataza eta ariketek ikasleak komunikazioan trebatzen dituzte eta ikasgelan solidaritza sortzen laguntzen diete.
- Bereziki baliagarriak izan daitezke, eskuartean den material grabatua ulermena lantzeko egokia ez denean.

Beste ikasleei entzuten Entzute-ariketak ahozko adierazpena lantzeko taldekako saiotan sartuz, besteak hizketan ari diren bitartean entzuteko motiboa ematen diegu ikasleei. Honek

irakaslearen aurrean zerbait egin behar duenean edo berari zuzenean hitz egiten zaionean bakarrik arretatzeko ohitura txarra menderatzen lagun diezaioke ikasleari. Gaur egungo ihardunbide didaktikoek ohitura txar hau sustatzeko joera dute eta guk ere horixe bera egiten dugu pentsatu nahiko genukeen baino maizago, ondoren zerrendatutako en erako elkarreraginak gehiegi erabiltzen ditugunean:

Irakaslea	——> Ikastaldea	Lana egituratzen du.
Irakaslea	——> Ikastaldea	Erantzuna eskatuz (galdera bat, adibidez).
Ikaslea	——> Irakaslea	Erantzuna ematen du.
Irakaslea	——> Ikaslea	Erreakzioa.
Irakaslea	——> Ikastaldea	Arreta eskatzen.

Irakaslearentzat zerbait egiteko ohitura dinamika nagusia «Irakasle->Ikasle» ez den iharduera-moduetara ere irits daiteke, taldeko solasetara, esaterako, edo ikastalde osoak parte hartuz egiteko ahozko adierazpen-ariketetara. Hori gertatzen denean, ikasleak ez dira zuzenean berekin zerikusirik ez duten hizketaldiei arreta emateko motibaturik egoten.

Dinamika hau, ordea, alda daiteke lan horretan entzute-ariketak sartuz, *entzuleek* izango bait dituzte era horretan entzuteko arrazoiak. Ikus dezagun nola mamitzen den hori hurrengo ekintza hauetan.

Ekintzak (.1) *Istorio egiazko edo* *gezurrezkoak (.2, .3, .4)*

Ekintza hau era honetan egiten da: batek istorio bat kontatzen du eta entzuleak arretaz egongo dira egiazkoa ala gezurrezkoa den erabakitzeke. Ondorengo aldaera hau ere oso baliagarri izan daiteke zenbait egoeratan: esatariak hiru istorio kontatzen ditu gai bera dutenak; bi gezurrezkoak dira. Entzuleek egiazkoa zein den asmatu beharko dute.

Esataria irakaslea izan daiteke edo ikasleren bat. Egiatan, maiz aski oso ona izaten da bi eratara egitea: lehenbizi entzute-ariketa lege, irakaslea esatari dela; eta gero ahozko adierazpenaren lanketa gisa, ikasleek beren istorioak asmatuz eta talde osoari kontatuz.

Zenbait gauza lor daiteke lehenengo moduan (irakaslea esatari):

- Entzumena lantzeko balio du.
- Ekintzaren hurrengo faseetako eredu izan daiteke.
- Hainbesteko zailtasunik gabe bultzatzen du ekintzara, orobat jolas horretan parte hartzeko gogoia berotuz.

Prozedura horri buruzko argibideak ematea zaila izan daitekeenez, behe-mailetan batipat, ekintza hau bideraerrazagoa da lehenbizi irakasleak ereduak aurkezten duenean. Argibide horiek ulergarriago egiteko beste modu bat idaztea da; gero talde bakoitzak eztabaidatu egingo ditu, harik eta guztientzat argi egon daitezen arte. Hasierako fase honek, beraz, hitz egitea eskatzen du, entzutea eta argibideak ulertzen eta esanahia argitu eta negoziatzen aritzea.

.1
Entzute ariketak

<i>*Ekintza:</i>	<i>Giroitze-ariketa</i>
<i>Esataria</i>	Hitz bat esaten du.
<i>Entzulea</i>	Aurreko hitzaren azkeneko letrarekin hasten den hitz bat esaten du.
<i>Prozedura</i>	Ikasleak bata bestearen ondoren.
<i>Aldaerak</i>	– gai bati buruzko hitzak, adibidez, «udazkena» edo «kirola»; – txandaka egin beharrean, ikasgelako bati begiratu; – aurrekoarekin loturaren bat duen hitz bat esan.
<i>Arrazoia</i>	Leku handiren bateko komunikazioa probatu. Bereizmen fonetikoa.
<i>*Ekintza:</i>	<i>Istorio egiazko ala gezurrezkoa</i>
<i>Esatariak</i>	Istorio egiazko edo gezurrezkoak kontatzea.
<i>Entzuleak</i>	Zein istorio den egiazkoa erabaki.
<i>Prozedura</i>	Istorioak taldeka prestatu eta gero kontatu. Beste talde batekerabakiko du egiazko ala gezurrezkoak diren.
<i>Arrazoia</i>	Talde barruko solidaritza eta ahozko adierazpena lantzeko laguntza. Arretaz entzutera bultzatzen du eta motibazioa ematen.
<i>*Ekintza:</i>	<i>Gezurra aurkitu</i>
<i>Esatariak</i>	Istoria berriz kontatu edo testu bat laburtu xehetasun faltsu edo gezurren bat tartean sartuz.
<i>Entzuleak</i>	Xehetasun faltsu edo gezurra aurkitu.
<i>Arrazoia</i>	Ahozko adierazpenaren lanketa; arretaz entzun; motibazioa.
<i>*Ekintza:</i>	<i>Informazioa gehituz</i>
<i>Esatariak</i>	Istorio, testu edo aurkezpenen baten laburpena.
<i>Entzuleak</i>	Laburpenean eman ez diren zertzeladak erantsi.
<i>Arrazoia</i>	Ahozko adierazpena landu; arretaz entzun; motibazioa.
<i>*Ekintza:</i>	<i>Argibide idatziak taldean eztabaidatu</i>
<i>Prozedura</i>	Atazaren bat burutzeko argibideak talde txikitan irakurri/eztabaidatu; eta beharrezkoa izatera, argitu.
<i>Arrazoia</i>	Gauzakegiteko argibideak argitzeko eraginkortasuna; komunikamena lantzea; argibideen ulermena; solidaritza sustatzea.
<i>*Ekintza:</i>	<i>Idazketaren aldia</i>
<i>Prozedura</i>	Entzundako istorio bat idatziz laburtzea.
<i>Arrazoia</i>	Hizkuntzaren lanketa zabaldu edo luzatzea.

Ikasleak hitz egin aurretik talde txikitan prestatzeak honako abantaila hauek ditu:

- Talde txikiko segurtasunean errazago prestatzen dira ikasleak klase osoaren aurrean hitz egitea den lan zailagorako.
- Taldeak solidaritza eta sostengua eskaintzen du beste taldeekiko «lehiarako» prestatzen diren bitartean.
- Talde txikiaren baitan ikasleak bere konfidantza-mailari dagokion rola har dezake.

Zenbaitetan egokia izan daiteke ikasleei nork hitz egingo duen beren taldeetan erabakitzen uztea. Esate baterako, talde batean hiru lagun baldin badira, bakoitzak istorio bat kontatzea erabaki dezakete. Beste batzuetan, ez du agian talde osoak hitz egingo eta lagun batek bakarrak kontatuko ditu istorio guztiak. Beren buruarekin konfidantzarik handiena duten ikasleek hartzen dituzte beren gain askotan rolik bizienak talde-ekintzetan; baina horrelako ekintzak askotan egiten baldin badira, konfidantza gutxikoak ere suspertu egiten dituzte beren taldekideek paper garrantzitsuak egitera. Horrela, taldea gauza izango da ikasleei irakasleak eman ezin dien sostengua emateko.

Ekintza honen beste aldaera bat talde bat «entzule» izendatzea da; talde honek beste batek istorioa kontatzen bukatu bezain laster erabaki beharko du egiazkoa ala gezurrezkoa den. Badirudi zenbaitetan modu honetan hobeto ardaizten dela ekintza eta lehia-sena eta aurkaria okerrean harrapatzeko poza handitu egiten direla.

Gauzak horrela egitera, istorioaren zenbait alderdiri buruzko galderak egin dakizkieke beste taldeei, benetan arretaz dauden jakin ahal izateko.

Aldaerak

Ariketa-modu hauek hedakorrek dira eta egoera eta maila desberdinetara egokitze bezain sortzaileak. Adibidez, behe-mailetan irakasleak irakur ditzake lehenbizi istorioak eta gero ikasleei testua irakur erazi, ondoren egiazkoa zein den asmatzeko. Edozein mailatarako moduko beste aldaera bat telebistako emankizunetatik sortua da: hitz baten hiru definizio ematea da kontua, egiazkoa bat bakarra delarik.

Honen antzekoa da «gezurra aurkitu» entzute-ariketa; hemen esatariak gezurren bat esaten bait du edo entzuleek aurkitu beharko duten zertzelada faltsuren bat sartzen. Esatariak, adibidez, lurralderen bateko geografiaz edo norbaiten historiaz ariki, gezurren bat esan dezake; edo lehen esan ez den detaile faltsuren bat sartu istorioa berriro kontatzen duenean edo gertaerak laburbiltzerakoan jatorrizko testuan ageri ez den itemen bat sartu.

Hiztunak ekintza honetan ahoz aurkezten duenari orain arte «istorioa» deitu izan zaio batipat. Baina horrelako entzute-ariketak sar daitezke beste ahozko ekintza askotan ere:

- deskribapenetan;
- testuen laburpenetan;

- narrazio motz bateko, libururen edo eleberriren bateko zatiren bat berriro kontatzean.

Laburpenak egiteak berez informazioa laburtzea eskatzen bait du, edozein eratako laburpenak egiten direnean, logikoa da entzuleei jatorrizko testuan edo aurkezpenean egon eta laburpenean sartu ez den zertzeladaren bati buruzko galderak egitea.

«Islamabad» izeneko teknikak, taldeko hizkuntz ikaskuntzatik sortu zenak ere, ahozko jarioasuna lantzerakoan, entzute-ariketak berebarneratzen ditu. Ekintza honetan, tadeko batek beste taldekideek ezagutzen ez duten lekuren bat deskribatzen du. Hizketan ari denak esaldiren bat esaten duenero irakasleak edo beste ikasle batek Cuisenaire erregleta bat edo esaldia irudikatzen duen beste gauzaren bat jartzen du mahai gainean. Erregletek ordezkatzan dituzten esaldiak errepikatuz ordurarte esandakoa laburbiltzeko eskatuko die irakasleak ikasle bati edo batzuei.²

Giroitze-ariketak

Egoki dator hemen entzute-ariketa bere barnean sartzen duen beste ekintza bat deskribatzea. Ikasarioari hasiera emateko egokia den giroitze-ariketa honetan, eta ahozko adierazpena eta entzumena lantzeko ekintzen aurretik, ikasle batek edozein hitz esaten du. Ondoren beste batek beste hitz bat botako du aurrekoaren azken letrarekin hasten dena.

Aldaera batek are komunikatiboagoa egin dezake ekintza hori: hiztunak bere aurrean dauzkanetako edozeini begiratzen dio eta gero horri esaten hitz hori. Aldaera hau leku handitan, entzutea nekeza izan daitekeen lekuetan, balia daiteke komunikazioa badenentz ziurtatzeko.

Ekintza honen bitartez lantzen dira:

- bereizmen fonetikoa;
- letreiaketa;
- ahozko ulermena;
- ahoskera.

Horren antzeko beste giroitze-ariketa oso ezagun batean, aurreko hitzarekin lotura duen beste hitz bat esateko eskatzen zaie ikasleei. Lehen aldaeran bezala, honetan ere komunikazioa lantzen da maila batean, ikasle bakoitzak bere aurretik hitz egin duenari ulertu beharko bait dio bera mintzatu aurretik. Prestakizun ona dira giroitze-ariketa hauek artikuluan deskribatzen diren beste zenbait lani ekiteko, bai belarriak bai adimena «zabaltzeko» balio bait dute.

Ekintza-katea

Orain arte deskribatu diren ekintzak elkarri lotu dakizkioke edo «katea egin» ekintza-multzo handiagoa moldatzeko. Berehala azalduko dugun hurrenkera agian luzecgia izango da zenbait egoeratan, baina ekintzak elkarri nola lotu erakusten du:

- 1 Entzutea eskatzen duen giroitze-ariketa bat.
- 2 Irakasleak hiru istorio kontatzen ditu, teknika erakutsi eta entzumena lantzeko. Taldeak egiazkoak zein den asmatu behar du.

.2
Argibideak

Ahozko adierazpena eta entzumena lantzeko ariketatarako argibideak

- 1 Irakurri argibideak eta, hala behar bada, beharrezko diren gauza guztiak argitu.
 - 2 Hiru istorio sortu beharko dituzue: bata egiazkoa izango da, faltsuak beste biak. Minutu bat edo bi aski izango dira istorio horiek kontatzeko. Ez duzu idazten aritu beharrik; ohartxo batzuk hartzea aski izango da.
 - 3 Nahi duen eran antolatuko ditu istorioak talde bakoitzak. Agian errazena eta azkarrena taldea beste hiru taldetxotan banatzea izango da; taldetxo bakoitzak bere istorioa asmatu beharko du.
 - 4 15 minutu daukagu istorioak prestatzeko.
-

.3
Argibide bereziak

Talde batentzako argibide bereziak

Denok duzue egin beharreko ataza bat, baina zuen taldeak, gainera, *beste bat izango du berezia*.

- Lehenbiziko taldeak bere istorioak kontatzean, zuen taldeko batek beharko du:
 - istorioetako *bat* (edozein) arretaz entzun;
 - oharrak jaso;
 - lehen ekintzak bukatu ondoren, ikasle horrek berriro kontatuko du istorioa bere hitzez, baina *tartean gezurren bat sartuz*;
 - beste talde batek gezurra non dagoen asmatu beharko du.
 - Taldeak *erabaki behar du zeinek errepikatuko duen istorioa*.
-

- 3 Ikastalde osoa talde txikitan banatzen da, beren istorioak asma ditzaten.
 - 4 Taldetxo batek edo gehiagok beren istorioak kontatzen dizkiote talde osoari (istorio batzuk hurrengo saiorako gorde daitezke). Beti beste talde batek faltsua zein istorio den asmatu behar du.
 - 5 Ikasle batek berriro errepikatzen du lehen beste talde batek kontatu duen istorioa, baina zertzeladaren bat gehituko dio, lehengoan sartu ez dena. Gainontzerako taldeek xehetasun faltsu edo gezur zein den aurkitu behar dute.
 - 6 Ikasle batek laburki kontatuko du berriro lehen ere kontatu duen istorio bat. Beste batek laburpen hartan sartu ez den xehetasunen bat erantsiko du.
 - 7 Ikasle bakoitzak kontatutako istorioren baten laburpena idazten du buruz.
- Nire lanean oso baliotsu gertatu izan zait entzute-ariketen erabilera; ikasleek talde handian hitz egitea eskatzen duten edozein ekintzatan sar baitaitezke. Ikasleek entzungo dutela ziurtatzen dute eta esatariari, entzuleari eta irakasleari lortu nahi izan duten komunikazioari buruzko feedbacka ematen diete. Ez dute

4 Zergatik esaten zaio sandwich-ari sandwich?³


Istorio hauetako bat bakarra da egiazkoa. Zein? Marka ezazu ✓ ikurraz egiazko istorioaren laukia.



Ingeleseiei oso gustatzen zaizkie landako, parkeko edo hondartzako otorduak. Hondartzan jateak duen arazo bakarra zera da: hondarrez betetzen dela jatekoa askotan. Halako batean norbaiti haragia edo gazta bi ogi-zerraren tartean jartzea bururatu zitzaion. Horrela ez zen jatekoan hondarrik sartuko. Horregatik deitzen diegu *sandwich* sandwichiei*.

A. ☐

Sandwich hiria Ingalaterrako eki-hegoaldean dago, Dover eta Canterbury-ren artean. Oso herri txikia da Dover edo Canterbury-rekin erkatzen bada, baina hango biztanleek beti uste izan dute garrantzi handiko hiria dela eta hobe dela han bizi beste bi handiago horietako edozeinetan baino. Behin Sandwich-eko gizon bat bazkaltzen ari zen beste birekin, bata Dover-ekoa eta Canterbury-koa bestea. Sandwich-ekoak ogi-zerra lodi bat jarri zuen mahai gainean esanez «ogi-zati hau Canterbury da». Gero, beste ogi-zerra bat lehengoaren gainean jarritz, «eta hau Dover». Gero gazta-puska bat hartu eta bi ogi-zerren artean jarri zuen esanez «gazta-puska goxo hau Sandwich da horraatik». Gizon horri zor diogu sandwichiei izen hori ematea.



B. ☐



XVIII. mendeko kapare ingeles bati, Sandwich-eko kontea bera, asko gustatzen zitzaion kartetan aritzea. Gau eta egun osoak ematen zituen horretan eta gorroto zuen jateko bere jolasak eten beharra. Behin batean bi ogi-zerraren tartean haragia sartzea otu zitzaion, horrela bazuen bere jokoak eten gabe jateko aukera. Sandwich-eko konteari zor dio sandwichak bere izena.

C. ☐

* Ingelesez «sand» hondarra da.

inolaz ere «egiazko» eztabaida, partaide denak elkarri entzuteko zaletasunak eta benetako ekarpenak egitekoak biltzen dituen, baztertzen. Dena den, horrelako komunikaziorako zubi izan daitezke, ez bait da beti erraza ikasgelako muga artifizialen artean komunikazioa sortzen.

Azkenik, uste dut hemen deskribatutako teknikak, ingelesa era askotako egoeratan irakasteko baliozko gertatu direnak, euskara irakasteko egoeratan ere baliagarriak izango direla.

Oharrak

- 1 TESOL: Espainiako ingeles-irakasleen erakundea nazioarteko erakunde bati atxikia.
- 2 Earl Stevik-en *A way and Ways*-en (Newbury House, 1980) eman da deskribapen osoagoa.

- 3 Granger eta Plumb (1981:38) in Colin Granger eta John Plumb. 1981. *Play Games with English - Book 2*. Heinemann International. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.